



ESKOLA
AGENDA
2030
energia

ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLAKO AGENDA 2030

BULETIN EELTRONIKOA

ENERGIAREN AURREZPENA ETA ERABILERA ARDURATSUA HELBURU

2022/2023 ikasturtean, Eskola Agenda 2030en hezkuntza-programaren baitan, “Energia irigarria eta ez kutsagarria” 7. Garapen Jasangarriko Helburuari heldu genion. Zehazki, Gipuzkoako gainerako ikastetxeekin batera, helburu hori “**Energia, bizitzaren motorra**” lemapean landu genuen.

Ekimen honek ikastetxean eta herrian kontsumitzen dugun energia aurreztea eta eraginkortasuna handitzea bilatzen du. Horretarako, **ezinbestekoa da ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko zein herriko gainerako eragileen ohituretan eragitea.**

7 ENERGIA
ESKURAGARRIETA
EZ-KUTSATZAILEA



ENERGIAREN INGURUKO JARDUERAK




ikasleak erdigunean jarriaz eta horien parte-hartzea bultzatzeko asmoz, gela ezberdinetako energia arduradunak izendatu eta bi taldetan banatu genituen: **Brigada Berdea** batetik (Lehen-hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleen ordezkariak osatutakoa) eta **Eko-ordezkariek** bestetik (LHko 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasle-ordezkariek). Aldi berean, **ikastetxeko gainerako parte-hartze organoak sortu** genituen.

2022/2023 ikasturtean zehar **eskola barruko eta herriko energia-diagnosia landu** eta energiaren erabilera hobetzeko **esku-hartze plana diseinatu** genuen.



Honez gain, 2023ko ekainean udal foroa antolatu genuen, eta bertan, energia aurrezteko Udalari zuzendutako proposamenak eta gure gain hartutako konpromisoak aurkeztu genituen. Era berean, Udalak herri mailan egindako hobekuntzen berri eman zigun.

Egitasmoari jarraipena emateko asmoz, 2023/2024 ikasturtean **energiaren esku-hartze planaren edukia garatzen hasi gara**. Horrela, besteak beste, berogailuaren erabilera aztertzeke asmoz, abenduan zehar, ikastetxeko eremu ezberdinetan, **tenperaturaren neurketak** egin ditugu eta urtarrilean zehar jasotako informazioa aztertzen ari gara. **Era berean, argiteria nahiz tresna elektrikoak modu egokian erabiltzen ditugula ziurtatzeko jarraipen-lana egiten dugu, eta berogaila piztuta dagoenean leihoak eta ateak itxita daudela bermatzen dugu.**



Aurrera begira, **martxoak 6an, udal foroa** izango dugu, 2023ko ekainean egindako azken udal forotik emandako aurrera pausoak azaltzeko eta **Udalarekin batera ikasleak idatzitako esku-hartze planeko proiektu partekatu bat adosteko.**